

ARTE EDERREN FAKULTATEA

Lan arloko esperientzia egiaztatua duten 40 urtetik gorakoentzako sarrera

412/2014 Errege Dekretuak, graduko unibertsitate ikasketa ofizialetan sartzeko baldintzak arautzen dituenak, lan esperientzia egiaztatuz sartzeko bidea aurreikusten du bere IV. kapituluan. UPV/EHUK arautegia onartu zuen, eta 2009ko irailaren 14ko eta 2011ko ekainaren 17ko EHAAn eman zen argitara.

Unibertsitatean bide honetatik sartu ahal izateko, honako baldintza hauek bete behar dira: interesatuak egin gura dituen ikasketen arloan lan-esperientzia izatea, unibertsitateara beste bide batetik sartzeko aukera ematen dion titulaziorik ez izatea eta 40 urte beteak izatea unibertsitatean sartzeko eskaria egingo duen urte naturalean.

Bide honek ikasketa konkretuetan sartzeko era ematen du. Izena eman ahal izango da, horretarako ezarritako egunetan, campusetako errektoreordetzetan eta Sarbide Bulegoan.

Eskariari buruzko erabakia ikastegiko dekanok edo zuzendariak hartuko du, errektoreak horretarako eskumenak eskuordetuta ikastegiko Akademia Antolakuntzako Batzordeak zehaztutako irizpide objektiboei jarraituz. Batzorde horrek zehaztuko du zein esperientzia mota eskatuko den ikasketa bakoitzerako, nola egiaztatu beharko den esperientzia hori, nola balioetsiko den eta zeren arabera erabakiko den eskatzaileen hurrenkera. **Edozelan ere, interesatuak elkarrizketa egin beharko du.**

Lan esperientziaz egindako balorazioak betiko balioko du unibertsitateko ikasketa jakin horietarako.

Irizpide espezifikoak

Akademia Antolakuntzako Batzordeak 2010eko maiatzaren 4an erabaki zuenez, akreditazio irizpideak eta eskaerak balioesteko baremoa hauek izango dira:

1. Akreditaziorako irizpide eta baremo berak ezartzen dira fakultatean irakasten diren gradu guztietarako: Arteko Gradua, Kultura Ondareen Kontserbazio eta Zaharberritzeari buruzko Gradua eta Sorkuntza eta Diseinuko Gradua.
2. Guztira, 100 puntu lor daitezke. Merezimenduak honela balioetsiko dira:
 - a. **Lan arloko esperientziaren egokitasuna aukeratutako graduarekiko.** Ondoko esparruak balioetsiko dira, baldin eta agiri bidez egiaztatu edota argazki dossier bat eta egindako obra aurkeztez badira. **35 puntu, gehienez:**
 - i. **Lortutako esperientzia artista profesional edo amateur gisa**
 - ii. **Diseinuaren eremuetan** (grafikoa, industrial, altzariak, objektuak, ehuna eta moda, lorezaintza eta paisajismoa, ilustrazioa, komikia, etab.) **profesional/sortzaile gisa izandako esperientzia.**
 - iii. **Kultur ondare eta ondasunak zaindu eta zaharberritzeko arloan lortutako esperientzia**
 - iv. **Ikus-entzunezkoen eta arte eszenikoaren arloan** (zinema, bideoa, argazkigintza, irudi digitala, argiztapena, ezenografia, etab.) **erdietsitako esperientzia.**
 - v. Arlo hauetako artisauak: ebanisteria, zeramika, ehunean, beiratea, metala, etab.
 - vi. **Arlo hauetan lortutako esperientzia: kultur kudeaketa, arautu gabeko irakaskuntza, arte galeriak eta museoak, kultur etxeak, akademiak, etab.**
 - b. **Lanean emandako denbora balioetsiko da, 15 puntu gehienez.** 0,5 puntu urteko, bete beharreko baldintza izango da, eskaera egin aurretiko 10 urteetan, lan arloan 5 urteko esperientzia izatea.
 - c. **Aurretiko prestakuntza akademiko edo profesional arautua, 10 puntu gehienez.** Irizpide hauek hartuko dira kontuan:
 - i. Lehenago aipatutako antzeko arloetan jasotako prestakuntza ikastaroak: puntu 1 orduko

- ii. Bestelako prestakuntza ikastaroak: 0,1 puntu orduko
- d. **Hizkuntzen ezagutza, 5 puntu gehienez.** Irizpide hauek hartuko dira kontuan:
- i. Euskara: EGA edo baliokidea, 2,5 puntu. Beste maila batzuk: A1 oinarrizko ziurtagiria, 0,5 puntu; A2 oinarrizko ziurtagiria, puntu 1; B1 maila ertaineko ziurtagiria, 1,5 puntu; B2 maila ertaineko ziurtagiria, 2 puntu; C1 maila aurreratuko ziurtagiria, 2,5 puntu.
 - ii. Atzerriko hizkuntzak: A1 oinarrizko ziurtagiria, 0,5 puntu; A2 oinarrizko ziurtagiria, puntu 1; B1 maila ertaineko ziurtagiria, 1,5 puntu; B2 maila ertaineko ziurtagiria, 2 puntu; C1 maila aurreratuko ziurtagiria, 2,5 puntu.
- e. **Elkarrizketa, 35 puntu gehienez.** Ahozko proba bat izango da. 15 eta 30 minutu bitartean hitz egin beharko da, Akademia Antolakuntzako Batzordeko bi kideren aurrean, honako gaiei buruz: alderdi biografikoak, unibertsitate prestakuntzarako motibazio eta interesak, curriculum, jasotako prestakuntza, egindako lanak, erakusketak, ezagutzen diren garrantzi handiko artistak, etab. Horren ondoren, eskatzaileak 15-30 minutu bitartean egiten dizkioten galderari erantzun beharko die.

Ikastegiak balorazioa eta ikaslearen espedientea Sarbide Bulegora bidaliko ditu, unibertsitatean sartzeko prozedura orokorrari ekiteko.

Aurkeztu beharreko dokumentuak:

- Eskaria behar bezala bete, hartarako dagoen inprimakian.
- NANaren, pasaportearen edo adina frogatzen duen beste dokumentu ofizial baten jatorrizkoa eta fotokopia, biok erkatzeko.
- Hautagaiaren artista eta erakusketa ibilbibidea egiaztatzen duten dokumentuen dosierra.
- Curriculum vitae behar den bezala dokumentatua.



Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea
The University of the Basque Country

FACULTAD DE BELLAS ARTES
ARTE EDERREN FAKULTATEA

- Tasen murrizpena edo salbuespena izateko eskubidea frogatzen duen indarreko dokumenturaren fotokopia.
- Interesatuaren zinpeko aitortpena, dioena interesatua ez daukala titulazio edo ikasketarik unibertsitatera sartzeko bidea ematen dionik.
- Lan bizitzaren agiria.